

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko ekainak 13

Usurbil, 22. Zenbakia

**Ohitura zaharrari  
eutsiz: San Juan!**

**EZKONTZAK**



Alberto Ganuza Gonzalez eta Sarah Harvey Rossiter  
(1997-5-31)

**Xabier Iruretagoiena Manterola**  
(Santuenea))  
eta  
**Mari Karmen Lazkano**  
(Elduain)  
(1997-5-24)

**JAIOTZAK**

**Xabier Lazkano Iturrioz**  
(1997-05-24)  
(Puntapax kalea)

**Xabier Ugalde Alustiza**  
(1997-06-03)  
(Erdiko kalea)

**Aitor Zaldúa Cernuda**  
(1997-05-24)  
(Kale Nagusia)

**Leire Furundarena Padrones**  
(1997-05-25)  
(Irazu kalea)

**Natali Izagirre Aginaga**  
(1997-05-27)  
(Arratzain bidea kalea)

**Andoni Landa Araolaza**  
(1997-06-01)  
(Beko kalea)

**HILDAKOAK**

1997-6-07  
**Ascensio Alkorta Izagirre**  
81 urte  
Zubieta



1997-6-05  
**Julian Udabe Borda**  
(La Salletarra)  
56 urte  
Txaparrenea

**Bai, esan?**


• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea egoitza	37 32 28
• Agerialdeko ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkartea egoitza	37 17 51
• Oiardo kiroldegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte musika eskola	37 15 94	• Eusko Tren informazioa	47 09 76
• Etumeta euskaltegia	37 20 01	• <b>Noaua!</b> aldizkaria	36 03 21



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

**3 3 5**

**usurbildar bazkide ditu  
Noaua!-k  
Zu ere egin zaitez bazkide!**



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

# Zer irizten?

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua!  
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,  
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.  
e-mail:  
Noaua.mandio@redestb.es

**Zuzendaria:** Olatz Altuna.

**Kazetariak:** Ainhoa Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.  
**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari  
Matxain, Nere Amenabar, Ines  
Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain,  
Begoña Zubiria, Amagoia  
Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves  
Aranburu, Luis Aranalde eta  
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**  
Arantxa Usarralde, Aitor  
Pikabea eta Nerea Kamino.  
**Erredakzio Kontseilua:** Olatz  
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo  
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa:** Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio  
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-  
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.  
**Sukaldaria:** Joxe Mari Sarasola,  
**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza,  
Industrialdea 1 - 2, 20.160  
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## San Juan Sua: gauaren argia

Jose A. Piñas

*Historia ikaslea*

San Juan gauean leku asko sagertzen zaizkigu suak argituta. Hainbat herrik beren jaiak ospatzen dituzte, eta Usurbilgo Kalezar auzoak ere bai. Mitologiarekin lotuta dagoen gaua da San Juan gaua, aintzina historiari datorkigun ohitura.

Orain dela 500.000 urte, Homo Erectus sua erabiltzen hasi zenean, gizakiarentzat aldaketa psikologiko eta sozial handia suposatu zuen: aire libreko eta kobazuloetako lehenengo kanpamentuak sortu ziren. Hauetan, suaren ondoan bildurik, ehiztariek beren balentriak kontatzen zituzten neguko gau luzeetan, eta beraien arteko harremanak taldea batzen zuten.

Baina Neolitik Brontze Arorako transizio garaian (K.a. 2.000. urtean), hasi zen eguzkiaren kultura indoeuropearren eraginez. Euskal Herriko dolmenak ere eki-mendebaldera begira daude, eta kulto horren froga dira. Solstizio sinesmen hauek oinarri mitologikoa duen erlijio naturalista baten parte dira. Bertan, eguzkia mugimendua eta bizitzaren sinbolo da.

Udako solstizioa da egunik egokiena eguzkiari omenaldia egiteko. Horregatik, urteko egu-

nik luzeena eguzkiari eskaintzen zaio. Iluntzean suak pizten direnean, suak gaua suntsitzen du, eguzki eta gizakiaren argiek bat egiten dute eta era berean, gizakiak bizitzaren berrikuntza lortzen du giro magiko horrekin.

Sinbolismo hau eta bataioa kristautasunarentzat bizi berri baten sorreraren sinboloa direla kontuan hartzen badugu, ez da harritzekoa egun honi San Juan (Bautista) izena jartzea.

Sinesmen eta ohitura asko eramaten dira aurrera gau honetan Euskal Herrian: Urban eguzkiaren ateratzea saltoka ikusten zuten; suaren hondarrak etxeetara eramaten ziren su berriak egiteko; suaren inguruan dantza egiten da; suaren gainetik salto egiten da izpiritu gaiztoak erretzeko eta bizia berritzeko; eguzki loreak ikuiluko zutoin batean zintzilikatzen dira...

Baina mitologia garaiko sinesmen eta ohitura hauek sarritan aldatzen dira: mendiko basoak sasi bihurtzen ari dira gizakiaren eskuetan, herriko plazan zegoen San Juan zuhaitza harri bihurtu da... "zibilizazio" garaiak dira.

Hala ere, mitologiaren gauak bere argia dauka oraindik: San Juan gaua!! San Juan gaua!!

**PORTADA: Iaz Kalezarren egin zen San Juan sua.**

**USURBIL**  
O P T I K A



*Udako eskaintza berezia!*  
Lentilen likidoak %17ko deskontuarekin  
Eguzkitako betaurrekoak %10eko deskontuarekin

Irazu kalea, 9-11, 20170 Usurbil  
Tlf. eta Faxa: 37 02 69 (Gipuzkoa)

**UKE EZIN H E**

**P A T R I**

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia,6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

## ARGITU NAHI DUT

Azken egun hauetan, azaldu diren nire aurkako argudioak, Aitzaga Elkartean gertatutako gora beherekin, nik ez daukadala zer ikusirik argitu nahi dut.

Neri inplikatzan didate; azalduetako argudioak, faltsukeriaz erantzuten dute.

Ez dut ezagutzen zer lortu nahi duten gauza guzti hauekin.

Ez da momentua, ezta bidea ere, baztertzeko zabaldu diren gaizki esanak, ezta ere azalpenak emateko, baina Aitzaga Elkarreak dituen bazkide guztiei eta nahi duen guztiari zer gertatu den argitzea nahiko nuke. Eta usurbildar guztiei azaldu.

**Urko Iparragirre**

## TURISTAK USURBILEN

Ekainaren 1ean, uholdeak gertatu ziren egunean, A-8 autopistak emandako aholkuak (N-634 hartzeko) Usurbilera eraman gintuen estuasun eta larritasun handiak bidean pasa ondoren. Hara heldutakoan herriak eman zigun harrera. Kiroldegia ireki, telefonoa eta mantak utzi, ikastolakoek bazkaria eman... eskertu nahi genieke, batez ere udaltzain batek (ez dakigu bere izenik) gurekiko izan zuen adeitasunagatik denbora guztian informazioa eman ez eta Usurbildik irtezeko momentuan auzobidetik gidatuz.

Udaltzainak esaten zuen bezala inoiz ez zen herrian ikusi horrenbeste "turista". Hemendik, bada, "turista"

hauen izenean: mila esker Usurbil.

**Mertxe Laskurain**  
(15 laguneko taldearen izenean)

(Diario Vascoetik Hartua)

### OKERRAK ZUZENDUZ

\* 21. zenbakian Orbeldi zentrala 1986ko maiatzaren 1ean erre zela esaten genuen. Ez da horrela, urtarrilaren 5ean hartu baitzuen sua.

\* Hernanin Mikel Laboak eskaini zuen kontzertuan Jexux Artzek parte hartu zuela aipatu genuen agendan, baina ez zen bera bakarrik izan, Kirikoketa talde osatzen duten Iker Muguruza, Pello De La Cruz eta Mikel Artolak ere jo zuten.

**T**xirrikitutik



Argi: Ekaitz

Atzean kotxeak eta bizikleta ikusiko ez balira... erdi aroko ezkontza dela esango genuke. Honelaxe eraman zituzten Zubietan ezkondu berri ziren Mixku eta Garbine Txitxardin beltz aldera. Bidean gal ez zitezen zortzi zaldunen babesa izan zuten.

**MAHUKA**



**GAZTE DENDA**  
**Orain, udaberri**  
**puntako m**

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



**TABERNA**

Pintxo bereziak  
eta  
giro aparta



Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17



## MIKEL BENGOETXEA IPARRAGIRRE

**27 urte ditu Zubietar peto honek, eta horrela delako, zubietartzat besterik ez du bere burua. Erreboteko jokalaria eta entrenatzailea, katuak oso gustokoak dituela aitortu digu.**



### **Enpresaritza ikasketak eginak omen dituzu.**

Bai, 1993an bukatu nituen ikasketak. Eta nahiko ongi joan zitzaizkidan. Behintzat, ekainean nire promozioarekin batera lizentziatu nintzen.

### **Eta lana segituan aurkitu al zenuen?**

Bai, lan desberdinetan ibili ondoren eta curriculumak bidali ondoren, Banco Guipuzcoanon hartu ninduten, eta harez gerotik bertan nabil. Horretan behintzat ez daukat kexatzerik.

### **Eta une honetan non zabilta?**

Banco Guipuzcoanoren egoitza desberdinetan egon naiz lanean: Pasaian, Errenterian, Andoainen, Usurbilen, Hernanin eta gaur egun Urnietan nago.

### **Eta ikasi duzuna aplikagarria al zaizu lanean?**

Bai, asko. Horretan ere zortea izan dut.

### **Eta zein da zehazki zure kargua?**

Urnietako hau egoitza berria da, eta bertan bi pertsona gaude, ez da oso handia. Une honetan bertako zuzendaria naiz. Eta kredituez, jendearekin hitz egiteaz e.a. arduratzen naiz.

### **Hain gaztea eta zuzendaria?**

Bai, baina ez dut pentsatzen bizitza osoan lan honetan jarraitzea. Asko "erretzen" du. Hori gertatu zaie bahintzat aurretik egon direnei.

### **Eta kreditu bat eskatu eta ezezkoa esatea zaila al da?**

Horretara ere ohitu egiten da pertsona, baina batzuetan bai, oso gogorra egiten da kreditua eman eta ezetz esatea

**Errebotean ere ibiltzen omen zara.**

Bai, jokatzear gain, txikien taldeak ere entrenatzen ditut. Eta Zubietar Pilota Elkarteko zuzendaria ere banaiz. Ikusten den bezala, titulu asko ditut, baina hortik aurrera...

### **Eta zer nolako maila dago Zubietan?**

Ez dut esango punta puntako jokalaria garenik, baina ezta txarrenak ere. Erdi aldean egongo gara. Eta jokalaria bezala ere berdina esan dezaket.

### **Zein da ba une honetan, erreboteko talderik sendoena?**

Baionakoa, baina Iparraldean talde on ugari dago. Azken partiduan Baionakoak nahiko abantaila atera ziguten. Nabarmena da Iparraldeko taldeen nagusitasuna.

### **Zuen entrenamenduak ikustera jenderik joaten al da?**

Ez gehiegi. Gogoratzen naiz behin autobus bete japoniar etorri zela gu ikustera, kamara eta guzti, noski. Bestetik, inguruko pertsonak ere ez du errebotea ezagutzen, nahiz eta gertu-gertu eduki kirol ikusgarri honetaz gehiago jakiteko aukera. Errebotea bultzatzeko bazkide kanpaina bati ekitea pentsatu dugu elkartetik.

### **Lagunekin eta ondo pasatzera nora joaten zara gehiago, Usurbil edo Lasartera?**


Biak konbinatzen ditut. Horretan ez dago arazorik.

### **Etxean geratzen zarenean, berriz, lagun berezia daukazu bertan, ezta?**

Bai. Katu bat daukagu etxean, siamesa. Ez dauka izenik baina ederki moldatzen gara. Asko gustatzen zaizkit katuak.

**elexpe**  
SOLARIUN  
bono bereziak  
**ileapaindegia**

Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 37 04 62



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**

## TXOKOALDE



Iñaki  
Labaka

### Ura goitik behera eta gu estu eta larri

**U**holdeak direla eta **Noa-uak** atera duen ale berezia ikusi besterik ez dago egun madarikatu hura nola bizi izan genuen jabetzeko. **Konturazterako**, ustekabea, **urak** dena **tapatu** zuen dena. Nigandik hasita, momentu estu eta larri xamarra pasa genituen Txokoalden. Horregatik, zutabe hau eskerrak emateko erabiliko dut. **Eskerrak Iruindegiko Joxe Ramoni**, arriskuan zeuden etxeetara alerta abisua pasa zuelako. Ni, behintzat, horrek libratu ninduen. Eskerrak **auzoko bizilagunei**, etxeak urez beteta geneuzkala bere etxeetan hartu gintuztelako eta ura jeitsi bezain laister auzoa bere honetara ekartzeko lagundu zutelako. Eskerrak **Saltxipikoei** jatena eta ura ekarri zutelako. Eskerrak **Berriolako langileei**, astelehen osoa kaltetutako etxeak garbitzen pasa zutelako. Eskerrak udalari, kalteak ahal den neurrian eta lehenbailehen konpontzeko ahalegin guztiak egin dituelako. Eta eskerrak dena egun argiz gertatu zen, gauez gertatu izan balitz...

Azken berriek diote, Saltxipitik hasi eta Ori ibaia bitartean erreka agerian jarriko dutela. Horretarako erreka ezkatutzen den hormigoia zulatu eta orain urte batzuk zegoen moduan utziko dute. Dirudenez, urak ekarritako enbor eta harriez itxi ziren azpi horiek, eta urak gaintetik joan behar izan zuen. Erabaki honekin denak ez dira gustora, baina gure onerako bada egin dezatela.

## AGINAGA



Iratxe  
Begiristain

### Uholdeek lehen jaunartzeak atxeratu

**L**ehen lehor xamar ginela eta orain berriz lehertzeko faltan. **Tenporak**, berriz, **trumoi giro** honekin gelditu omen dira. Ez ote da pasa den igandeko euri jasa ere poltsa berean sartuko! Ea orain hego hai zeak bazterrek lehortzen laguntzen duen. Beharra badago, bazterrek bustialdi ederra hartu baitute. Baina euria baino gehiago lubiziak izan ziren protagonista Aginagan. Errepideak lurra hartu zituen. N-634 errepidea itxita, nekazal bideak ere bai, inkomunikazioa izan zen nagusi. Horren adierazgarri Lehen jaunartzea egin behar zuten aginagarren ezintasuna.



Igandean ospatzekoa zen **lehen jaunartzea** baina **bertan behera** utzi zuten. Honela 15 egun atzeratzea erabaki eta ekainaren 15ean izango dira.

Bestalde, hilabete honetan aginagarrok kolesterol probarik ez egitea dugu egokiena. Izan ere, hori da hori, **pastel eta tartak** jan beharra! Aurten, tailaz aldatu beharko ditugu udako "putzu galtzak". Beste 15 egun gelditzen zaizkigu

**Usurbilgo gozogintza eskola-koek** egiten dituzten postreez gozatzeko. Beraz badakizue, goazen denok Argixurengana (Zaharren tabernara).

## ATXEGALDE



Zaloa  
Arnaiz

### Argirik gabe goizaldera arte

**P**asa den asteko euri jasa eta bere ondorioak gutxion ahotan egon dira. Herriko hainbat auzo egoera tamalgarrion geratu arren, **Atxegaldek ez du kalte handiegirik izan**, muino baten maldan kokatuta baitago. Hala ere auzotik pasatzen den errepidearen zatia moztuta gelditu zela aipatu behar. Batetik hainbat zuhaitz errepidera erori zirelako eta bestetik auzoaren behekaldean dagoen erreka presio handiko ibai bilakatu zelako. **Mahaspildegiko muinoa** ere ez zen hain erraz libratu, euriaren eraginez lubizian jasan baitzu-en, behekaldeko baratzak estaliz.

Eguraldi txarraren ondorioz, auzotarrok **igande guztian argirik gabe** gelditu ginen. Gaueko hamabiak aldera hasi ziren Iberdrolako langileak arzoa konpontzen. "Bonba" baten bidez ura ateratzen ibili ziren, eta hura konpontzeko gutxienez hiru ordu behar izan zituzten. **Astelehenean**, berriz, **garbitze lana** izan zen nagusi. N-634 errepidea itxia egon zen Atxegaldeetik aurrera, lokatzez beteta zetozen kamioiak besterik ez zitezkeen ikusi.

## SANTUENEA



Alfonso Vidal

## Uholdeekin larri ibai ertzean

**E**kainaren Tean susto ederra hartu genuen santueneatarrok. Euri jasa izugarri batek beldurra zabaldu zuen gure auzoan. Ibaiak gainezka egingo zuenaren beldur ginen, baina ez zen horrelakorik gertatu. Ibai ertzean, Donatonean... **ura sartu zen**, baina askorik ez. Hala ere, **lokatzeta eta lohia nagusi** zen kaleetan. Urdaiagara joateko bidean, berriz, lubizia, beraz, bertara joateko eskaileretatik igo behar.

Bestalde, **Ingemar** enpresak, **Moyuari** adjudikatu dizkio **Atallun** egin beharreko lanak. Jadanik hasi dira lanean. Lurrrak mugitzen, txukuntzen, betelanak egiten ari dira zenbait makina. Gainera, Txokoldetik ateratzen ari diren hondar eta lurrrak Atalluko lurretara eramaten ari dira. Dirudenez, lur hauek oso egokiak dira Santuenera joateko egingo den **errepide berrirako**. Izan ere, orain dagoena, Ingemarrak hartuko du eta aldameanean, parez-pare beste bat eraikiko dute.



## ZUBIETA



Xabier Arregi

## Zubieta Pilota Elkar-tearen batzar nagusia

**J**oan den maiatzaren 17an ospatu zen **Zubieta Pilota Elkar-tearen** lehenengo **Batzar Nagusia** eta, zegokion gisan, elkar-tearen norabidea markatzeko baliatu zen Batzarra.

Hasi, **aurkezpena** eginez hasi zen bilera, urte erdian urratu den bidea erreparatuz: Usurbilgo pelota festa, materiala erosteko egin den ahalegina, entrenamenduetan eta konpetizioan egindakoa... Balantzea, epealdia motza izanagatik, oparotzat hartu zen.

Segidan **etorkizuneko asmo-  
ei** heldu zitzaion: egiturak eta ondasunak sendotzea, trinketeko saioei ekitea, plaza libreko eskuzko txapelketa antolatzea, udara partean herriko festetan saioak egitea, pilota eguna aurten ere antolatzea. Hala ere ez ziren alde batera utzi egongo diren arazoak, eta horien artean lokalaren falta nabarmendu zen.

**Estatutuak onartu ziren** gero. Horien arabera, herri-elkarte zabala eta irekia da Zubieta Pilota Elkar-tea, herri-dinamika-rekin konprometitua, pelota euskal kulturaren ondare gisa hartzen duena eta, hortaz, euskaraz funtzionatuko duena. Edozein izan liteke elkarteko kide, ez adin, ez sexu, ez bestelako bereizketarik egin gabe.

Bere burua gobernatzeko Batzar Nagusia eta **bost laguneko Zuzendaritza Batzordea** izango ditu elkar-teak. Batzarrean bertan Batzorde

berria aukeratu zen, **Mikel Bengoetxea, Garbiñe Zaldúa, Joseba Rezola, Juanjo Olaizola** eta **Imanol Zalduek** osatzen dutena, denak, esan behar da, beren borondatez aurkeztuak.

Bazkidezari ere eskeini zitzaion arreta Batzarrean eta, **bazkideak egiteko** premia ikusita, **kanpaina** bati ekitea erabaki zen. Beraz, Noauako irakurle, bazkide egitea bururatu bazaizu, jar zaitez Zuzendaritza Batzordeko kideren batekin harremanetan, gustura emango dizu-eta elkar-tearen berri.

Bukatzerako, orain arte izandako **hutsuneak** ere aipatu ziren, hala nola, propaganda eta publizitate mailan izan diren gabeziak, errebotearen aldeko jendea biltzeko dauden zailtasunak edo emakumezkoen partehartze eskasa. Ea ba, hutsuneak zuzendu eta jardunbideari tinko eutsi ahal dion Zubieta Pilota Elkar-teak!

## KALEBERRI



Ines Kamino

## Uholdeen harian ura goitik behera

**U**rak goitik-behera. Ekainaren Tean kaleberriko kronika. Goikaldean ez, baina behelaldean, Etxe-aldia, Bizkarren eta Etxe-Zurin arazo larriak izan zituzten. Garajeak, kotxeak, etxeak... urez beteta, ikuskizun ederra. Eskerrak batzuk goizean goiz leihotik kale-  
ra begiratzen duten. Izan ere, Etxe-aldia urez betetzen ari zela abisua pasa zuenik bada. Eskerrak, dei horiek zenbait kotxe arriskutik kanpo jartzeko balio izan baitzuten.

## Uholdeak: 1400 milioitako kalteak Usurbilen

**E**kainaren Teko uholdeak guztion ahotan jarraitzen du oraindik. Hondamendi egun hartatik bi aste pasa diren arren kotxeak ur azpian, etxeak eta garajeak urez beteta, urak deuseztutako bideak, lur-jausiak... ez dira berehalakoan ahaztuko. Bi aste hauetan lan ugari egin dutenak ere badira: udaleko langileak. Aurrena han, ondoren hemen... etengabe aritu dira guztia normaltasuneta ekarri asmoz.

Uholde berezia izan zen ekainaren Tekoa. Orain arte Ori ibaiari begira egoten ginen: ur asko darama ibaiak, bere bidetik aterako ote da? Honelako esaldiak askotan entzun ditugu baina inork ez zuen espero orain dela bi aste gertatutakoa. Euri asko egin zuen bai, Igeldon 250 litro jaso zituzten (200 goizeko 7.00etatik 9.00etara), baina hondamendia erreka txikiek eragin zuten.

Puntapaxen Aranerrekak gainezka egin zuen, Etxealdia putzu haundi bat bihurtu zen erreka honek zeraman ur kantitate haundiagatik. Txokoalden Andatzatik jeitsitako urek (Errekazarrak) ekarri zuten hondamendia, Troian Larbaingo errekek eta Zaldierrekak, Aginagan Mapill errekek... eta horrela Usurbil guztian.

Txokoalde, Etxealdia,  
Puntapax eta Troia

Txokoalde, Etxe-aldia eta Kalezarrek (Troia eta Puntapax) jasan zituzten kalte haundienak. **Joxe Antonio Altuna** alkateak adierazi digunez, "Etxealdian, gehien bat kalte pribatuak izan dira, garajeak eta kotxeak harrapatu baitzuten urak. Bertako jendeak lan asko egin zuen, eta hori

*Ekainaren Tean izan ziren uholdeek gale-  
ra ugari sortu dituzte. Hala ere, herri-  
tarren erantzuna bikaina izan da. egunean bertan,  
eta ondorengo egunetan herritar ugari aritu da garbi-  
keta eta konponketa lanetan. Udal brigadakoak ere, lan ugari egin dute.*



*eskertu beharra dago". Txokoalden beste era bateko kalteak izan ziren. Arlo pribatu-  
an, kalteak haundiak izan dira baina publikoan ere bai. "Obra publiko aldetik hau izan da ikusgarriena. Azpiegitura*

Troian, familia  
batek betiko ohi-  
turak aldatu  
beharko ditu.  
Baserrira utzi eta  
beste toki batera  
joango baitira  
ziurrenik

*aldetik konponketa haundiak egin beharko dira, saneamendua falta da, hodiak eramanda daude, sei-hun metroan bidea falta, bi zubi puskatuta...". Azkenik Troia daukagu. Alkatearen arabera, "Troian kalte publiko eta pribatuak ezezik konponbide gabeko kalteak jasan dituzte. Familia*

*batek, bere betiko ohiturak aldatu beharko ditu. Troiako baserrikoek pauso garrantzitsu bat eman eta hortik ateratzea pentsatzen dute. Guk bien bitartean larrialditarako pisuak utziko ditugu".*

Usurbil osoa argirik gabe gelditu zen igandean. Goizeko 9.00etatik arratsaldera arte batzuk, eta goizaldera arte besteak. Hala ere, une hartako arazo nagusiak inkomunikazioa eta ur falta izan ziren:

Urdaigakoak inkomunikaturik gelditu ziren. Santuenetik ezin zen joan, llur-jausiak zeuden, eta Txokoalden biderik ez zegoen. Nekazal bideak ere kalte ugari jasan zituzten, bestela galdetu isolatuta gelditu ziren baserritarrei. Egoletan, Urtetan arazo haundiak izan ziren. Ostiralerako ordea, ia bide guztiak irekita zeuden.

Txikierdi, Aginaga eta Txokoalde urik gabe gelditu



ziren. Erroizpeko presan ez zegoen urik. Andatzatik zetozen urak errekarara zihoazen San Estebango depositora joan beharrean. Honela, Aginaga, Txokoalde eta Txikierrdin ez zegoen urik. San Estebango depositoa Añarbeko urez bete zuten, horretarako Santuenea, Zubieta eta eremu industrialean ura kenduz. Hala ere, Aginagara astearte arratsaldera arte ez zen urik iritsi, Txokoaalden hodi batzuk hondatuta baitzeuden. Orain usurbildar guztiok Añarbeko ura edaten dugu.

Udal brigadak lan ugari

Alkateak udaleko langileek eta herritarrek egindako lana azpimarratu nahi du. *"Txokoaalden korrika eta presakako lana egin zen. Udaleko brigadak, bertakoek, usurbildarrek... lan asko egin dute. Aldatxetik barrena Urdaiagara doan bidea hartu ahal izateko astelehenean trenbidetik Saltxipirainoko tartea irekita zegoen. Laupabost egunetan errekek bere bidetik zihoazen. Etxealdian jendearen erantzuna oso ona izan da eta herritar guztiei eskerrak eman beharra dago".*

Kalteak haundiak izan dira. Azaletik bada ere, aurrebalorazio bat egin zuten ekainaren 6an udaleko ordezkariak, apa-rejadoreek eta Foru Aldundikoek. Arlo publikoan, errepide-tan, presa konponketetan, erreka garbiketetan, saneamentuan 600 milioiko gastua aurreikusitako dute. Arlo pribatuan, berriz, enpresak, komertzioak, kotxeak, etxeak, garajeak... 800 milioi. Guztira 1400 milioiko galerak utzi zituzten ekainaren 1eko uholdeek.

Uholdeek 1400 milioi inguruko kalteak eragin dituzte. 600 milioi arlo publikoan eta 800 milioi pribatuan

Eta nork ordainduko du guzti hau? Udaleko ordezkariak ez dakite zer nolako laguntza jasoko duten. Oraingoan, gobernu zibilean larrialditarako laguntzak ematen dituztenez, bertara bidaltzeko txostena egiten ari dira. Foru Aldundiak 100 milioiko kontu bat ireki du

kaltetuak izan diren herrien artean banatzeko. **Joxe Antonio Altunaren** iritziz diru hori ez da nahikoa eta aurreantzean beharren arabera kopuru hori haundituko dutelakoan dago. Bestalde, Txokoaalden Eusko Jaurlaritzako makinak ari dira lanean. *"Astelehenean Txokoalde nola zegoen ikusi eta ostegunean beraien hasi ziren lanean. Erreka lur azpitik pasatzen den leku guztiak agerian jartzea da hauen asmoa. Orain dela 24-25 urte tapaketak egin ziren, orain, berriz, badirudi erreka agerian joatea hobea dela".*

Zonalde hau hondamendi eremu izendatzeko erabakia- ren zain daude kaltetutako herriak. Batzuen ustez izendatuko dute beste batzuen ustez ez. **Joxe Antoniorren** ustez, *"laguntzak izango dira. Hondamendi eremua edo laguntzarako beste bide batzuk jartzeari izen bat edo bestea eman diezaiotela, garrantzitsuena laguntza jasotzea da. Hala ere oso kezkatuta gaude, ez baitakigu zer gertatuko den".*

**Josu Aranberri**

**UHOLDEEN KALTE PUBLIKOAK**

- 1-Aranerreka. Bidea puskatuta. Lur jauziak
- 2-Ameri. Lur jauziak Zubietara bidean argia falta.
- 3-Arratzain bidea (Eluxondo). Lur jauziak.
- 4-Bustinzulo keramika. Lokala urez beteta.
- 5-Bordatxo mendia. Lur jauzia
- 6-Entzarrain.
- 7-Erroizpeko presa. Bidea, urik ez, hodiak puskatu...
- 8-Errota-berri. Lur jauziak.
- 9-Galardi. Lur jauziak.
- 10-Gorriti gaina. Lur jauziak.
- 11-Igartzazabal. Hodiak puskatuta...
- 12-Ibindos. Lur jauziak.
- 13- Kale nagusia. Lur jauziak.
- 14-Hilerria. Hormaren erorketa...
- 15-Mapillerreka.
- 16-Puntapax. Bidea eramana, farolak hautsiak
- 17-Santuenea. Lur jauziak.
- 18-Troia. Urak hartu zuen dena. Bidea puskatua.
- 19-Txara gaina. Lur jauziak
- 20-Txikierrdi-itxasku. Lur jauziak.
- 21-Txikierrdi-paso nibela. Horma puskatu...
- 22-Txokoalde
- 23-Txokoalde-Urdaiaga (Ulin Txatarrerria)
- 24-Urkamendi. Lur jauziak, bidea falta.

- 25-Urteta. Lur jauziak.
  - 26-Arrate.
  - 27-Etxe-aldia.
  - 28-Harane. Futbol zelaiko azala desagertu da.
  - 29-Larbain. Lur jauziak, bidea eraman.
  - 30-Arratzain-Artikula. Lur jauziak. Bideko zoruak eraman
  - 31-Egioleta. Bideak hondatuta, zoruak eraman
  - 32-Aldapa. Baserrira bidean lur jauziak.
  - 33-Gaztelu.
  - 34-Izpiraga.
  - 35-Gorostidi.
  - 36-Egiluze.
  - 37-Goiko-etxe.
  - 38-Arpidegieta. Uraren depositoa hautsi da.
  - 39-Udarregi ikastola. Lur jauzien ondoriozko kalteak.
  - 40-Agerialde ikastetxea.
- GUZTIRA.....**580.000.000**

**UHOLDEEN KALTE PRIBATUAK (Astelehena arte)**

- 1-Industriak (6) eta komertzioak (3)..... 25.000.000
- 2-Lurrak, baratzak, landareak....(42)
- 3-Etxebizitzak (18)..... 75.000.000
- 4-Garajeak (33)..... 25.000.000
- 5-Ibilgailuak (54)..... 46.000.000

## "Usurbilek lan asko egin du UEMAn sartzeko"

**Datorren ekainaren 15ean usurbil UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean) sartuko da. Hori dela eta, egokia iruditu zaigu elkarre honen berri zehatzagoa ematea eta Mikel Illarregi, UEMAKo lehendakariarekin hitz egin dugu.**

**Noaual.- Zenbat Udalerrrik osatzen dute UEMA eta zenbat pertsona daude bertan?**

**Mikel Illarregi.-** Une honetan, eta Usurbil gehituta 30 udalerrrik osatzen dugu UEMA. Eta guztira, 50.000 biztanle inguru daude bertan.

**N.- Noiz eta zerk bultzatu zuen UEMAREN sorrera?**

**M. I.-** 1988. urtean ekimen bat bultzatu zuen EHEK. Ordenantza batzuk planteatu ziren eta 30 bat herrik onartu egin zituzten. Hurrengo pausoa erakunde moduan funtzionatzeko estatutu batzuk eratzea izan zen. 1991ean sortu zen elkarte UEMA bezala.

**N.- Eta zein da zehazki UEMAREN helburua?**

**M.I.-** UEMAK bi helburu nagusi ditu. Lehena, eguneko bizitza soziala, administratiboa... azken batean gure bizitzako esparru guztietan euskara erabili ahal izatea da. Bigarren helburua herri euskaldun guztien artean lurgune bat antolatzea da. Badakigu zaila dela, elkarteko herriak geografikoki oso sakabanatu-

ta daudelako, baina helburu hauek oso epe luzerako jarriak daude.

**N.- Zer suposatzen du Usurbil UEMAN sartzeko?**

**M.I.-** UEMA osatzen duten herri gehienak txikiak dira, 1000 biztanlebaino gutxiago dituzte. Baina sartu berri den Oiartzunek 8.000 biztanle inguru ditu, eta Usurbilek ere 6.000 inguru ditu. Kantitate aldetik igoera nabarmena somatuko da. Alde horretatik garrantzi handia du.

**N.- Eta zein baldintza bete behar ditu herri batek UEMAN sartzeko?**

**M.I.-** Herritarren %75 edo %80ak euskalduna izan behar

du. Eta noski, proiektu honetan sinistu behar du. Azpimarratzekoa da Usurbilgo Udalak borondate handia erakutsi duela. Baina horretaz gain, herritarrek eta elkarrekin izugarri lagundu dute.

**N.- Zein izango dira emango diren lehen pausoak?**

**M.I.-** UEMAKo ikerlari bat joango da udaletxera eta bertako funtzionamendua nola den aztertuko du. Hau da, euskaraz zenbateraino funtzionatzen den, ze falta den erabat euskaraz lan egiteko, kanpora begira nolakoak diren harremanak... Hau da, egotzaren erradiografia egingo da,

Eta ondoren, azterketaren emaitza ikusi ondoren, esango dugu ze pauso eman behar diren urte horretan. Hots, plangintza bat martxan jarriko da.

**N.- Eta herritarrek somatuko al dute eragina?**

**M.I.-** Udalak herritarrei berarekin dituen harreman guztiak euskaraz izateko aukera emango die. Eta aukera horretan herritarrek erabakitzen du. Nahiz eta Usurbilen euskararen transmisioa etxean nahiz kalean ziurtatuta egon, ofizialotasun usaia duten gaietan euskara baztertu egiten da. Baina bazterketa hau ohitura faltagatik egiten da, izan ere, eskabide bat euskaraz gazteleraz bezain ondo egin baitezakegu.



Mikel Illarregi UEMAKo lehendakaria

Idoia Torregarai



### URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 2255

Pintxo eta bokata  
goxo-goxoak

Eguzkitza

## Frontoiko eserlekuak: zaharrak ala berriak?

Udaleko martxa asko bizitu da azken aste hauetan. Ekainaren 1eko uholdeek normaltasuna apurtu dute eta udaleko mugimendua bestelakoa izan da, etengabea. Beste eginkizunak ahaztu gabe, gertaera tamalgarri honek utzitako arrastoak konpondu nahiari eman zaio berebiziko garrantzia. Hala ere, Usurbilgo etxe nagusiak eman du bestelakorik.

Frontoiko estalki berria jartzeko lanak amaitzear daude. Zalantza zen nagusi. Amaituko al dute Santixabeletarako? Badirudi baietz. Lanak aurreratu daude eta bi astetan amaituta egon daiteke. Hala ere usurbildarren artean sortu da bestelako galderarik: eserleku berriak jarriko dituzte ala zaharra utziko dute?

Udalak eta Kirol Patronatuak eserleku berriak jartzea erabaki dute. Diseinua eginda dago eta orain dauden antzekoak izango dira: banakako eserlekurik gabeak, lau filakokak eta dema plazara mugitu daitezkeenak. Ezberdintasunak ere izango ditu: orain arte eserlekuak bi pusketetan banatuta zeuden, berriak lau puska izango ditu, metro bat luzatuaz; zabalera aldetik 60 zentimetro estuagoa izango da, beraz kontraktantxak zerbait irabaziko du eta altueran 60 zentimetro galduko ditu. Momentu honetan aurrekontuak eskatzen ari dira, eta



baliteke Santixabeletan zaharretan eseri behar izatea.

Eserleku zaharrakin zer egin? Oraindik ez dute erabakirik hartu. Jadanik nahiko zahartuta daude, baina berriak ekartzearan Harane futbol zelaira eraman ditzakete.

Ileapaindegintza-eder-gintza ikastaro berria

Datorren ikasturtean, ileapaindegi- edergintza ikastaro berri bat jarriko da martxan Lanbide Hastapenerako egitasmoaren barruan. Ageri Aldeko gela bat prestatuko da horretarako eta ikasten jarraitu ezin duten edo nahi ez duten 16-19 urte bitarteko gazteei zuzenduak daude.

Eskeintza hau eskualde mailan egiten den programaketaren barruan kokatzen da, eta hau da datorren ikasturteko eskeintza: Lasarten igeltseritza eta Lorategi mintegiak; Andoainen Iturgintza eta

kotxearen txapa nahiz pintura; Hernanin kotxearen mekanika eta Usurbilen aurrez aipaturikoa eta gozogintza.

Bestalde, aurten margotzako Lanbide Hastapen ikastaroa egin duten ikasleek 350 ordutako sakontze ikastaro bat egingo dute urritik abendura bitartean Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak emandako dirulaguntza bati esker. Ikastaro hau Aginagako tailerrean egingo da.

Eroskiko planaren behin-behineko onarpena

Ekainaren 10ean amaitu zen enmendakinak aurkezteko epea eta ekainaren 12ko ezhoizko batzarrean eman zitzaion Eroskiko planari behin-behineko onespena. Honenbestez, Foru Aldundira bidaliko da plana, honek sei hilabeteko epean behin-betiko onespena eman dezan.



ZUMET A  
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

### ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsalada hozber oatrufa zaporez
- Zapoatzangurr ozbeteriketaitzaski saltsaz
- Aspizunapatapur e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxeko azken buruko endegustazioa
- Ardo berezia eta kafea

3.200 pta.

## TABERNA-JATETXEA



ANTAXETA

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

## Kirikoketa txalaparta taldeko kideak Zilbor Hesteak taldearekin



**Kirikoketa** taldeko kideak benetan kospetsuak egiten ari dira. **Jexux Artze, Iker Muguruza, Mikel Artola eta Pello De La Cruzek Zilbor Hesteak** jazz taldeak grabatu berri duen diskan hiru lantxo egin dituzte: hasieran Amaia Zubiriarekin kanta bat jotzen dute, ondoren hiru minutuko bakarkako saio bat eta azkenik, taldearekin batera abesti bat. Beraz, kaleratzeaz dagoen diskan beraien lana entzuteko moduan izango gara. Eta zuzenean ere bai, **Gazteizko Jazz Jaialdian** hartuko baitute parte. Zilbor Hesteak taldeak bere diska berriaren aurkezpena egingo du eta Kirikoketa taldeko kideak ere han izango dira zuzenean. Uztailaren 17an izango da hori.

## Joxe Ramon Zubimendik beste liburu bar argitaratu du

**Joxe Ramon Zubimendi** eta **Pello Esnalek** elkarlanean sortu duten hirugarren liburua argitaratu berri dute. "**Irakurbideak**" izenburupean hogeitazortzi euskal idazleren lanak hautatu eta euskara batura aldatu dituzte Sendoa argitaletxeak argitaratu duen lan honetan. Besteak beste Txomin Agirre, Resurreccion Mari Azkue, Axular, Manuel Lasarte, Kirikiño, Xabier Lizardi, Joxe Migel Barandiaran eta Uztapideren lanak pasa dituzte euskara batura.

Zubietarrak eta Pello Esnalek elkarlanean sortutako hirugarren lana da "Irakurbideak". 1993an "**Idazkera liburua**" plazaratu zuten eta 1995ean, berriz, "**Jokaera liburua**". Bi egileon helburua nabarmena da: euskara argi eta garbi, zuzen eta egoki baten alde daude Zubimendi eta Esnal



## Udal brigada Sohütan lanean maiatzaren 31n



Arg. Joxean

**Udal brigadako lau kide** Sohütan egon ziren maiatzak 31ean. Ez pentsa egun pasa, atse-den hartzera joan zirenik, ez horixe, **Eperra ikastola** eraikitzen lagundu asmoz bidaiatu zuten Zuberoa aldera. Hauekin batera, Usurbilgo bi zinegotzi, **Kerman Errekondo** eta **Jose Luis Arrastoa** eta beste bi usurbildar, **Rikardo Izeta** eta **Jose Luis Bengoetxea** aritu ziren lanean. Irudietan lantaldea eta Itxaro Borda, Eperra ikastolako zuzendaria. Larunbatean itzuli zen udal brigada Usurbila. Hurrengo egunean uholdeak zirela eta lan esker-ga izan zuten.

## HERRIKO BI DANTZARI LAPONIAN

**Aitziber Elorza** eta **Arantxa Txapartegi** usurbildarrak Lanponiara joan dira dantza egitera. Izan ere, Donostiako **Goizaldi dantza taldeak** Laponiako Rovaniemiko Nazioarteko Folklore Jaialdian parte hartuko du. Aitziber eta Arantxa talde honek partaideak izanik, han ibiliko dira dantzan ekainaren 11tik 15era bitartean. Ereku urriko kulturetako ordezkariak bilduko dira 25. aldiz ospatzen den jaialdi honetan. Albania, Alemania, Hungria, Italia, Rumania, Errusia, Suedia, Latvia eta Udmurteko taldeekin batera dantzatzeko dute Goizaldikoek eta herriko bi neskek. Ea zer berri ekartzen diguten!



**A**urreko alean aurreratu genizuen bezala **Usurbil F.Teko** jubnilek 2. mailatik 1. mailara igotzea lortu dute. Denboraldi bikaina egin ondoren, sailkatze fasean 3. postua lortu eta datorren urtean 1. mailan jokatuko dute.

### MENDIZALEAK PIRINIOTAN

Andatza KEko ki-deak antolatuta Gran Facha mendira joan ziren ekainaren 8an 10 lagun. Oso eguraldi ona egin zuten eta beraien arteko giroa ere primerakoa. Hurrengo irteerarako prest daude guztiak.

### LEHIAKETARAKO DEIA

Zubietako Herri-Batzarrerako logotipo edo ikurra egiteko lehiaketarako deia egin du batzarrek berak. Logotipoaren diseinuarekin batera komenigarria da ideien funtsa eta arrazoiak azaltzea.

Honekin batera egilearen datuak eta telefonoa aurkeztu beharko dira Alamandegiko udalaretoan (edo batzarkideren bati eskura emanda). Lehiaketa edozeini zuzendua dago eta uztailaren 7a da epea. Alamandegin bi lagunentzako afaria da saria eta arrazoi historiko eta estetikoa aintzat hartuko dira saria emate-rakoan.

### IKASTOLAREN EGUNA

Ekainaren 1ean ospatzekoa zen **ikastolako eguna** astebete berandua egin behar izan zuten uholdeen ondorioz. Umeek majo gozatu zuten goizean Eguerdi partean, berriz, Usurbilgo frontoian bazkaria egin zuten guraso, ikasle nahiz irakasleek.



**E**kainaren 8an Adunan **Gipuzkoako Eskola Txikien X. Eguna** ospatu zen. Bertan Eskola Txikien Federazioa osatzen duten 26 herritako ikasle, guraso eta irakasleak bildu ziren. "Eskola Txikiak Bizirik" lelopean herri txikien dinamikan eskola hauek duten garrantzia azpimarratu nahi izan zuten. Usurbildik **Aginaga**, **Santuenea** eta **Zubietako** eskolako haur, guraso eta irakasleak joan ziren. Beste herrietako haurrek bezala, hemengoek ere beraien emanaldi propioa egin zuten.



**D**enboraldiko laugarren garaipena lortu zuen ekainaren 8an **Haimar Zubeldia** usurbildarrak. La Trinidad Sariaren 16. edizioan garaile izan genuen Trucios herrian. 116 kilometroko ibilbidean ondoren 21 segunduko aldea atera zion bigarren txirrindulariari. Zorionak!. Anaia, berriz, Alpeetan ibili da. **Joseba Zubeldiak** Alpeetako klasikan parte hartu zuen ekainaren 8an Gipuzkoako selekzioaren mailotarekin. Nazioarteko proba honetan 67. postua egin zuen.

## KIROL KOPLA



**Amagoia  
Mujika**

**A**urtengo denboraldia amaitu dugu, zelai haundian jokatzeko den futbolari dagokionez behintzat. Urrian hasi genuen laisterketa luzeak bereak eta bi eman ditu; hainbat korrika saio, ostika, lesio... baina orokorrean, lehen urtea izanik gustora gaude egin dugun lanarekin.

Jakingo duzue, aurtan, lehendabiziko aldiz Usurbilek futbol taldea izan du zelai haundian. Urteetan atzera egiten badugu, areto futboleko talde bat aurkitu genezake, Txirpi jate-txea. Gu ere, ikastola mailan makina bat eskolarteko txapelketa jokatuak gara, kontxako hondartzan ere bai. Baina futbol zelaia haundian? Inoiz ez. Honelaxe bada, beldurrak atzean utzi, indarrak hartu eta erronka nagusi bat izan genuen: futbol taldea ateratzea.

Bai atera ere. 14-20 urte bitarteko neskak Usurbilen futbolean jokatzeko! Nork esan hori orain dela urte batzuk? Inork ez. Utopia zena egi bihurtu da, udarako txoro haize haiek ez zituen haizeak eraman eta igandero-igandero Harane futbol zelaian nahiz Gipuzkoako zelaietan aritu gara lehian.

Lehenengo urtean lau garaipen lortu ditugu, hasi berriak izateko ez dago batere gaizki. Jokalarien batzbesteko adina kontutan hartuta, 16-17 urte, pozik egoteko moduan gaude. Ez ahaztu, beste urtetan, lehenengo urtea partidurik irabazi gabe pasatzen duten taldeak egon ohi direla. Saskibaloi taldea baino garaipen gehiago lortu ditugu behintzat...

## Pelota astea ekainaren 26tik 29ra

**P**elota soinurik ez dugu izan azken 5 hilabetetan. Frontoiari txapel berria jartzen hasi zirenetik denbora dextente pasa da eta bitarte horretan frontoiko hormak ez dute pelota zartadarik jaso. Hemendik aurrera ez da horrelakorik gertatuko. Hasteko, Andatzape-Peña Pagola elkarte-ko pelota batzordeak pelota astea antolatu du udalaren laguntzaz ekainaren 26tik uztailaren 2a bitartean.

Pelotari buruzko hitzaldi batekin emango zaio hasiera aste honi ekainaren 25an arratsaldeko 20.30etan. Udarregi zaharrean pelotarien eta pelotaren munduan aritzen den jendearen hitzak entzun ahal izango dira.

Hurrengo egunean, ostegunean, goizeko 10.30etan herriko txikienen pelota festa. Pelota jokoak, partidu txikiak eta opariak guztien gozamenarako. Ilunabarrean, berriz, herriko pelotarien txanda. Eskuz binaka, infantiletan **Zabala-Mikel Olasagasti** eta **Xabier Iribar-Mendizabal** aurrez-aurre. Palan **Patxi Arruti** eta **Imanol Zumeta** usurbildarrik **Pierola** eta **Iradi** lasartearren aurka. Eta ondoren Zubieta Pilota Elkarteko joko garbiko partidua.

Ostiralean, hilak 27, gaueko 22.00etatik aurrera Usurbil eta

Lasarteren arteko "derbia" jokatu da. herri arteko txapelketako finala izango balitz bezala.

Hiru partidu erakargarriekin emango zaio amaiera aste honi. ekainaren 29an. 22.00etan, hasteko herrian etorkizun haundia duten pelotarien arteko neurketa: **Ugaitz-Ibon Aranalde, Asier Portu-Ibai Orenaren** aurka. Eta ondoren punta-puntako afizionatuak: **Esna- Gastesi Olai-zola II- Apezetxearen** aurka eta **Esain- Iparragirre Berasaluze VII- De Luzen** aurka.

Hala ere, Santixabel egunean izango da beste partidurik. Bertan profesionalen partiduak jokatu dira, beraz ez galdu aukera hori.

Bestalde, Usurbilgo pelotariak babesle edo laguntzaile bat izango dute hemendik aurrera: Usurbilgo sagardotegiak. **Aginaga, Araeta, Illunbe, Irigoien eta Saizar sagardotegiek** akordio batera iritsi dira eta hauen laguntza izango dute. Hemendik aurrera, Usurbilgo pelotarien kamisetetan Usurbilgo sagardoa irakurriko dugu eta frontoiko txapa azpian ere bai. Horrez gain, pelota partiduetako errifetan, aurrez aipatutako bost sagardotegietan egin ahal izango diren afariak zozketatuko dira hemendik aurrera.



## Andatzpe: ibilbide luzeko elkartea

**G**erra ondorengo lehen elkartea dugu Kale nagusian dagoen Andatzpe Kirol Elkartea. Urte asko pasa dira sortu zenetik, eta bidean lokal batzuk utzi dituzte atzean.

**Andatz Pe Kirol Elkartea** 1948ko irailean sortu zen. Data hori baino hilabete batzuk lehenago usurbildar talde bat Antonio Pelloren bizikleta taillerean biltzen hasi zen eta elkarte bat sortzeko erabakia hartu zuten. Lokalaren beharra ere bazegoen eta galdetzen ibili ondoren, Don Francisco Errastik, Sanestebaneko apaizak, Txaramuntun zuen lokala utzi zien. **Teodoro Aranburu**, elkartearen sortzaileetako batek, horrelaxe azaldu digu: *"Lokala uzteko baldintza bakarra jarri zigun: bertan zegoen egurra txikitu eta ganbarara igotzea. Baina egurra eta zaborra kentzeaz gain, lurra ere ugari atera behar izan genuen"*.

Tranparen bidez bai-  
mena

Baina lokala edukitzea ez zen guztia, elkartea sortzeko bai-mena ere lortu behar zen. Teodorok aipatzen digunez, *"gerra ondorengo urteak ziren, eta egoera oso txarra zen, Francok elkarte, sindikatu eta antzekoak kendu baitzituen. Beraz, Andatzpe elkartearen "tranpatxo" bat egin beharra izan genuen"*. Garai hartan udaletxeko idazkaria **Alfonso Elorza** zen, eta haren laguntzaile **Dionisio Aranburu**. Hauen izenean jarri zuten elkartearen zuzendaritza. Horrela sortu zen elkartea.

Benetako lehendakaria **Jose Goenaga** izendatu zuten. Baina hauetaz gain, hauek izan ziren elkarteko lehen partaidea: **Antonio Aranburu, Ramon Bereyarza, Jose Maria Iraola, Francisco Iraola, Juan Jose Zugasti, Miguel Zugasti, Manuel**



**Iureta, Antonio Unanue, Jose Garcia, Isidro Urkia, Jose Irasuegi, Felix Salsamendi, Inacio Aranburu, Romualdo Betelu, Teodoro Aranburu, Dionisio Aranburu, Alfonso Elorza, Ignacio Urkia, Juan Urkia, Jose Urkia, Marcial Goenaga, Antonio Orbegozo, Francisco Exposito, Julian Bengoetxea, Martin Manterola, Jose Ramon Aizpurua, Antonio Borda, Jose manuel Unanue eta Juan Ignacio Unanue.**

Lehenengo garaiak irrifarrez gogoratzen ditu teodorok: *"Txaramuntoko lokalean sukalde txiki bat genuen, ikatzezkoa. Bi mahai eta aulki batzuk erosi eta lurrezko zolu oker hartan jarri genituen. Bai gustora egon ere! Ez genituen oraingo luxuak."*

Etxebesten bigarrena

Baina lokala txikia geratu zitzairen eta lekuz aldatu behar izan zuten 1957an. Etxebeste kalean jarri zuten elkarteko gune berria. Gaur egun Andatz Pe-ko diruzaina den **Pako Alkortak** azaldu digunez, *"lokal honetan hasi ziren emakumeak sartzen elkartera. Astegunetan ez zen betetzen elkartea, eta hori dela eta hartu genuen erabakia"*. Teodororen ustetan, ordea, diru kontuak ere izan zuten zeresanik: *"gastuak igo ahala, gero eta jende gehiago*

*egotea hobe zen, eta nire ustez horregatik sartu ziren emakumezkoak"*.

Baina Etxebesteko lokaletik ere joan behar izan zuten. 1957tik 1986. urterarte egon ziren bertan. Urte horretatik aurrera, gaur egun dagoen tokira pasako da elkartea. Lokal hau erosi egin zuten bazkideen artean.

Andatzpek 100 bazkide "aktibo" ditu, gehi jubilatutako daudenak. Bazkide bat jubilatzen denean, bere semeetako bati utz diezaioke bazkidetza. Semeak ez badu nahi edo semerik ez badu, beste pertsona batek bete beharko du honen tokia.

Kirol elkarte gisa jaio zen Andatz Pe, eta bere ardatz nagusia pelota izan da, txirringularitzaz gain. "pelota txapelketak Peña Pagola elkartearekin batera antolatzen ditugu, eta hori da gure ekintzarik nagusia gaur egun. Hala ere, "elkartean informazio gehiago nahi duenak badauka nirekin hitz egitea", dio Pako Alkortak.

Ibilbide luzea egin du Andatzpek, eta badirudi etorkizunari begira ere bide asko geratzen zaiola egiteko.

Idoia Torregarai

## Baserriak bizirik behar ditugulako

**16 urte inguru daramatza-te baserriarrek Donostia-ko Bretxan beren jeneroa saltzen. Orain, ordea, handik bidaliko dituzte, baina ez dakite zein izango den beren kokapen berria. Donostiako alkatearekin, Foru Aldundiko jendearrekin hainbat bilera egin ondoren oraindik ez dute argirik ikusi. Horregatik, goize-ro-goizero, 8.00etatik 9.00etara, manifestazioa egiten dute Donostian ekainaren 2az geroztik.**

Goizean goiz jeiki, aurreko egunean bildutako barazki freskoa furgonetan sartu eta goizeko 6.00etatik 8.00etara Bretxan aurkituko dituzu Usurbilgo hainbat baserriar: Ostatuko Mari Karmen, Zuria-raindarrak, Olarrikoak, Illun-bekoak, Lartzaindakoak... Atotxan dauden dendariak dira beren bezero nagusiak. Hauek Atotxako merkatura joan aurretik, egunero Bretxara bisitatxoa egiten dute baserriarrei beren produktuak erosteko asmoz. Ondoren, dena jaso eta aurrez zehaztuta duten banaketari ekiten diote.

Orain, ordea, dena kolokan dago. Donostiako udalak Bretxako lurra saldu ditu eta merkatu haundi bat egin behar dute, pribatua. Baserriarrek lekutxo bat izango dutela zabaldu da, baina hauek nahiago dute beste leku independente bat. Mari Karmen Ostatukoak azaldu digunez, "gurekin jolasten ari dira agin-

*tariak. Sariegi plazan lekua izango genuela esan ziguten lehendabizi, ondoren Grosera joango ginela, Anoeta eta Igarra ere aipatu dituzte, baina azken finean momentu honetan ez dakigu gure lekua non izango den, eta zein baldintza izango ditugun. Dakigun bakarra da gauden lekuan denbora gutxirako gaudela".*

Atotxako dendariak dira beren bezero nagusiak, eta baldintza onetan hauengandik gertu egotea da baserriarren nahia. "Udaleko nahiz Foru Aldundiko agintariekin bilerak egin ditugu, hitz politak entzun ditugu baina azkenean hortan gelditzen da dena. Bulebarra da oraingo, aukera bideragarri bakarra. Atotxako dendariak Igarara bidali nahi dituztela zabaldu da. Gu ere hara joatea ez genuke begi txarrez ikusiko" dio Mari Karmenek.

Ekainaren 2az geroztik manifestazioa egiten dute egunero eta hor dabilta borrokan, beren etorkizuna zein izango den jakin gabe. "Kanpoko jendeari jatetxeak jartzeko lekua ematen zaio, eta bertako jendeari, baserriarrei, ezin lekutxo on bat eman. Baserriak etorkizunik ez duela esaten dute. Nire ustez etorkizuna badu, baina hainbeste lan egin, inbertsioak egin, eta gero esperantzarik ez baduzu, oztopoak besterik jartzen ez badizkizute..." Baserriarren merkaturak bizirik iraun dezan baldintza duinak besterik ez dituzte eskatzen.

Txueka, Foru Aldundiko nekazaitza sailburuarekin orain dela gutxi egin dute bilera bat. Gauzak konpontzeko esperantza eman die, lanean hasiko direla esan die, baina manifestazioak bertan behera uzteko baldintzapean.



**TXIRIBOGA**  
TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13



**Elkaitze**

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun




# Lehiaketa

Sanjuanak direla eta, Kalezarko festetara bueltatxo bat egingo duzue gehienok eta gure lehiaketako galderari erantzuteko moduan izango zarete. Hauxe da galdera:

## Noiz egin zen Kalezarko eliza eta zein izen du?

Erantzun zuzenen artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu. Animatu eta bidali erantzunak ekainaren 23a baino lehenago, kale nagusiko gure egoitzara.





Sorpresa ederra hartu omen zuen **Milagros Pagolak** gure lehiaketako afaria egokitu zitzaioela jakin zue-nean. Guapa-guapa hor etorri zen **Zumeta** jate-txera argazkia ateratzera joateko. Hurrengo bisitan mahaiari eseri eta afari goxo bat egiteko aukera izango du.

Dexentek ezagutu duzue **Noauaren** maskota, eta baita non dagoen asmatu ere: Arratzainen dago. Hantxe, lasai-lasai pixa egiten **Noaua!** aldizkaria besapean hartuta, eta denoi ongi etorria emanez. Beno, ba ez zenekitenok, orain badakizue non dagoen.

Iritsitako erantzunen artean **Edorta Eguesena** izan da oraingo honetan zortea izan duena, eta berari egokitu zaio **Antxeta** jatetxeko afaria. **Edortak "pisainero"** izena proposatu digu gure maskotarentzat "beti pisainean dagoelako".

# Komikia



Inaki Udabe

## ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Arizeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL



**EKAINAK 14 larunbata**

- **Gure Pakea Zahar egoitzak Oñatin** egingo den **zaha-rren martxan** parte hartuko dute. Bi patruila (8 lagun) joango dira.
- Zubietako plazan:  
\*Arratsaldeko 16.00etan **eskuz pelotan Plaza Libreko txapelketako partiduak**.
- \* 18.30etan **erreboteko** txapelketa lokaleko **partiduak**

**EKAINAK 15 igandea**

- Yoko Garbiko partiduak Zubietako plazan, Gipuzkoako txapelketa: Infantilak, Zubieta 1- Zubieta 2 Kadeteak, Zubieta 1- Zubieta 2

**EKAINAK 18 astelehena**

- **Euskal Herria Askatu!**-ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.

**EKAINAK 21 larunbata**

- **Gure Pakea zahar egoitzak irteera** antolatu du **Urkiolara**. Irteera udaletxe aurretik izango da, goizeko **9.00**etan.

**EKAINAK 23 astelehena**

- **Euskal Herria Askatu!**-ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00**etan.



**USURBIL ETA UEMA UZTARRI BEREAN**

Datorren ekainaren 15ean, igandea, Usurbil UEMAn sartuko da (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean), eta hau ospatzeko egitarau zabala prestatu da.

**EKAINAK 13, ostirala**

**Gaueko 22.00etan: BIDEO EMANALDIA. "UEMA"**. Usurbilgo Udalaren eraginez mankomunitatea zer den azaltzen duen bideo egin berria eskainiko da frontoian.

**EKAINAK 14, larunbata**

**Eguerdiko 12.00etan: MUSIKA KONTZERTUA.** Kurtso amaierako kontzertua Udarregi ikastola, Ageri Alde ikastetxea eta Zumarte Musika eskola-ko ikasleen eskurik. Oiardo kiroldegian.

**Arratsaldeko 17.00etan: IPUIN, BERTSO, OLERKI ETA MARRAZKI LEHIAKETA.**

**Gaueko 22.00etan: HERRIKO TALDEEN JAIALDIA.** Urtero Santixabeletan egin ohi den jaialdia, aurten, aurreratu egin da. Frontoian ospatuko da.

**EKAINAK 15, igandea**

**Goizeko 11.00etan: ESNADIA** herriko txistulariekin.

**Eguerdiko 12.00etan: AGERIKO UDAL BATZAR BEREZIA.** UEMAn sartzeko erabakia hartuko duen udan batzarra izango da Joxe Martin Sagardia plazan.

**Arratsaldeko 14.00etan: HERRI BAZKARIA** frontoian.

**Arratsaldeko 18.00etan HERRI KIROLAK.** Auzoen arteko lehia eta idi dema.

**Arratsaldeko 20.00etan: ERROMERIA** herriko trikitilariekin.



**BAZKARIE TXARTELAK**  
5.000 PEZETAKO URTE OGORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_



**EKAINAK 25 asteazkena**

- Pelotaren inguruan **hitzaldia** Udarregi zaharrean. Arratsaldeko 20.30etan

**EKAINAK 26 osteguna**

- Goizeko 10.30etan **Haurren pelota festa**: jokoak, partidu txikiak, opariak...
- Gaueko 21.30etan Pelota partiduak frontoian:  
Eskuz pelota, infantilak:  
**Zabala-Olasagasti**  
**Iribar-Mendizabalen**  
Pala partiduak:  
**Arruti-Zumeta**  
**Pierola-Irudi**  
Yoko Garbiko partidu

**EKAINAK 27 ostirala**

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.
- Usurbil- Lasarte, herri arteko pelota partiduak Usurbilgo frontoian gaueko 22.00etan

**EKAINAK 28 larunbata**

- Eskuz pelota partiduak Usurbilgo frontoian gaueko 22.00etatik aurrera:  
\*Ugat- Aranalde  
Portu- Orena  
\*Esnal- Gastesi  
Olaizola II- Apezetxea  
\*Esain- Iparragirre  
Berasaluze VII- De Luz

**OHARRAK**

- ✓ **XXI.Santixabel Bertso paper Lehiaketa.** Gaia:

☞ Frontoiaren eraberriketa. Edozein doinu eta neurritan gutxienez 8 eta gehienez 12 bertso. Udaletxean utzi behar dira, **ekainaren 27 baino lehen.**

☞ Usurbilgo AEK euskaltegiak jakinarazten dizue **udako euskara ikastarotan matrikulatu** zaitzkeela. Matrikulatzeko **epea ekainaren 24a** da. Informazioa eta matrikula AEK euskaltegian.

☞ Kirodegiko saunan edo inguruko geletan 2 zintzilariodun **kate bat** eta **2 pulse-ra** galdu nituen, bata Ana Isabel izenarekin. Norbaitek aurkitu baditu deitu iluntzetan **360002** telefonora.

☞ 10-12 tailako **errealako txandala** hartuko genuke erregalatuta edo bestela

merke erosi. Deitu iluntzetan, **360002** telefonora

☞ **Pisua saltzen dut** kale nagusian, 3 gela, sala (tximiniarekin), 2 komun, sukaldea (jarria) eta ganbararekin. Interesatua dagoenak telefono honetara dei dezake: **37 29 22.**

☞ **Zubietako Herri-Batzarrak Herri-Batzarrerako logotipo edo ikurra** asmatzeko lehia-keta bat ireki da. Edonork parte har dezake. Aurkezteko **epea uztailaren 7an** bukatzen da, eta Alamandegiko udal-aretoan aurkeztu behar da (edo batzarkideren bati eskura eman, bestela). Saria emateko aintzat hartuko dira arrazoi historiko eta estetikoak. Irabazleak **Alamandegin bi lagunentzako afarria** eskuratuko du.



**Andatza KKEk** antolatuta **Amaia Elozegi eta Esther Mugertzak Turkiatik Birmaniarara bizikletaz** egindako bidaiko abenturak kontatuko dituzte ekainaren 25ean. **Udarregi zaharrean** izango da arratsaldeko **20.30etan.**

BORDATXO  
edaritegia

PINTXO BEREZIAK  
ETA AUKERA ZABALA

Aritzeta, 2

Tel.: 37 10 42

**N•I**

**Ileapaindegia**

MISTOA

Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A  
Telefona: 36 19 51

BARATZA  
**FRUTADENDA**

Aukera zabala  
zure eskura

Eguzkitza,4 USURBIL  
Tlf. 36 49 81



Saizar baserria, Kalezar auzoa  
☎ 36 22 28 - 37 29 82

# SAIZAR

## Jatetxea - Sagardotegia

500 pertsonentzako  
jangela  
Bi jatetxe kartarako  
aukerarekin



Produktu aukera  
zabala:

- Saizar sagardoa
- Saizar ozpina
- Señorío de Belmont sagardoz-a